


## Euskal AEko industria-prezioak % 1,3 jaitsi dira 2023ko abenduan, aurreko hilaren aldean

**2022ko abenduaren aldean, industria-prezioek % 5,9ko jaitsiera izan dute**

Eustatek bildutako datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioek % 1,3 egin dute behera 2023ko abenduan, aurreko hilaren aldean. Abenduko urte arteko tasak (azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duena) % 5,9 egin du atzera.

Azterketa xeheago batek agerian uzten du 2023ko abenduan *Koke-lantegiak eta petrolio-fintzea* (% 5,2) eta *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 3,7) sektoreek izan dituztela jaitsiera handienak prezioetan, aurreko hilaren aldean. Aitzitik, prezioetan hilabete arteko igoerarik handienak izan zituzten sektoreak *Altzariak, beste manufaktura-industria batzuk, konponketa eta instalazioa* (% 0,6) eta *Erauzketa-industriak* (% 0,4) izan ziren.

### Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Helburu ekonomikoaren arabera ondasunen sailkapenari jarraituz, 2023ko azaroaren aldean *Energiaren* prezioak % 5,0 jaitsi dira. *Kontsumo-ondasunek* % 0,8ko jaitsiera izan dute prezioetan, *Kontsumo ez iraunkorreko ondasunen* prezioak % 0,9 jaitsi direlako, *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* prezioak konstante mantendu direlako. *Bitarteko ondasunen* prezioak % 0,4 jaitsi dira eta *Ekipamenduko ondasunenak* % 0,1.

Urte arteko datuetan, 2023ko abendua 2022ko abenduaren aldean, prezio-jaitsierarik handienak honako arlo hauek izan dituzte: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 41,9), *Koke-lantegiak eta petrolio-fintzea* (% 8,8) eta *Industria kimikoa* (% 5,7). Aitzitik, urte artean igoerarik handiena izan duten prezioak honakoak izan dira: *Erauzketa-industriak* (% 11,3), *Kautxua, plastikoa eta bestelako produktu mineral ez-metalikoak* (% 9,1) eta *Ura* (% 7,6).

### Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Abendua 2023

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
<b>INDIZE OROKORRA</b>	<b>122,6</b>	<b>-1,3</b>	<b>-5,9</b>
<b>SEKTORE-BANAKETA</b>			
<b>Ateratze-industriak</b>	<b>131,1</b>	<b>0,4</b>	<b>11,3</b>
<b>Manufaktura-industria</b>	<b>128,5</b>	<b>-1,0</b>	<b>1,1</b>
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	131,3	-0,8	3,5
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	116,3	-0,4	4,8
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	139,6	-0,5	-2,3
Kokeak eta petrolio finitzen	135,0	-5,2	-8,8
Industria kimikoa	145,2	0,3	-5,7
Botiken fabrikazioa	130,0	0,3	6,0
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	120,3	-0,2	9,1
Metalurgia eta produktu metalikoak	138,7	-0,7	0,2
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	119,9	-0,3	4,8
Material eta ekipu elektrikoaren fabrikazioa	116,7	0,0	3,0
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	115,6	0,0	5,4
Garraioko materialen fabrikazioa	113,8	0,1	6,0
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	119,1	0,6	4,0
<b>Energia elektrikoa, gasa eta lurruna</b>	<b>87,0</b>	<b>-3,7</b>	<b>-41,9</b>
<b>Ura</b>	<b>131,9</b>	<b>0,0</b>	<b>7,6</b>
<b>INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA</b>			
<b>Kontsumo-ondasunak</b>	<b>129,3</b>	<b>-0,8</b>	<b>3,4</b>
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	118,9	0,0	5,3
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	131,0	-0,9	3,1
<b>Ekipu-ondasunak</b>	<b>118,4</b>	<b>-0,1</b>	<b>4,9</b>
<b>Bitarteko ondasunak</b>	<b>133,6</b>	<b>-0,4</b>	<b>1,4</b>
<b>Energia</b>	<b>109,5</b>	<b>-5,0</b>	<b>-28,2</b>

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2024ko Urtarrilaren 24a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Prezioen urte arteko aldakuntza positiboa izan da ondasun talde handi guztietan helburu ekonomikoaren arabera, *Energian* izan ezik, non % 28,2ko jaitsiera izan den. *Kontsumo-ondasunen* prezioak % 3,4 igo dira, *Kontsumo iraunkorreko ondasunak* % 5,3 igo direlako eta *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunak* % 3,1. *Ekipamenduko ondasunen* prezioak % 4,9 igo dira eta, azkenik, *Bitarteko ondasunenak* % 1,4.

## **INFORMAZIO-OHARRA**

Eustatek eskerrak eman dizkie parte hartu duten establezimendu guztiei egin duten esfortzuagatik. Haiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % **95,07**ko estaldurarekin kalkulatu da.

---

### **Informazio gehiago nahi izanez gero:**

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*  
Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz  
Prentsa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tel.: 945 01 75 62